

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Léon Tissier

*Arrueta-
Sarrikota,
Nafarroa
Beherea
(1924-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Léon Tissier Arrueta
Xuhigaraian sortu zen 1924ko
apirilaren 19an. Bigarrena
zen hamabi haurretako
laborari familia batean eta
anaia zaharrenak hartu zuen
etxeko segida. 1947an erosi
zuen bere lehen traktorea eta
mekanika berezi batzuekin
(ogi joitekoa, arto eta trefla
bihitzekoa) ibiltzen zen etxez
etxe. 1955ean kamioi bat
erosi zuen garraiolari gisa
hasteko bere kontu. Ainitz
gauza garraitu zituen bere
bizi guzian (arto bihia,
besteak beste). Léonek
Martxueta Orgillania erosi
zuen 1962an eta sei urte
berantago (1948an) ezkondu
egin zen, 44 urte zituelarik
eta bere andreak 42.
Ezagutza berezi bat zuen
Léonek: fruta-arbolena.
Hamar urte zituenetik, ikasi
zuen hauen landatzen eta
artatzen.

Zintak

SRK-001

- **Proiektua:** Euskal kultur erakundearen artxiboak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lekumberri, Terexa
- **Data:** 2007-09-24
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Familia handi baten bizia Arrutan 1930 inguruan

- **Erref:** SRK-001/001
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserriko lanak

Laburpena:

Léon Tissier 12 haurretan bigarrena da. Etxeko lanetan (urka joaitako) edo laborantxakoetan aitamak laguntzen zuzten

2. Laborari munduari lotu lana

- **Erref:** SRK-001/002
- **Iraupena:** 0:07:12. **Hasi:** 00:03:42. **Bukatu:** 00:10:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Léon 14 urtetan joan da mutil. Hortik laster, 1939-1945 gerla ezagutu du. Ez du etxeko segida hartu bainan bere lana beti lotua izan da laborariarenari. Traktur bat erosi du goizik (1947) eta mekanika berezi batzu laborari etxetako lanen egiteko. Ondotik (1955), kamion batekin gauza karreun hasi da (arto bihi etabar).

3. Etxetiarren eta etxeko nagusien arteko harremanak Amikuzen 1930-40 hamarkadetan.

- **Erref:** SRK-001/003
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:13:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Amikuze guzian bezala garai hartan, ainitz etxetiar bazen Arrutan. Hauek beren uzten erdia nagusiari ematen zieten : 40 zaku ogi egitean, 20 nagusiari joaiten ziren. Léon Tissier oroitzen da ogi peite egunean berean, nagusia bere partearen bila heldu zela.

4. Laborarien bizia eta elkartasuna

- **Erref:** SRK-001/004
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:13:35. **Bukatu:** 00:18:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Ogi peiten et ogi joiten ibili da Léon Tissier. Ibili da ere, zituen mekanikeri esker, arto, trefla eta faluxa bihikatzen. Laborariak ainitz elgar laguntzen ikusi ditu, adibidez ogi peitean.

5. Laborarien lanmoldeen aldaketaren faktoreak

- **Erref:** SRK-001/005
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 00:18:07. **Bukatu:** 00:22:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Jean Errecart-ek zerikustekorik badu Amikuze aldeko laborantxaren garapenean (geroztik Donapaleuko lizeoak bere izena hartu du). 1950 inguruan ere sortu da Donapaleu lehen bankua (Crédit Agricole) eta Lur Berri kooperatiba.

6. Fruitu-ondo mota bereziak

- **Erref:** SRK-001/006
- **Iraupena:** 0:07:03. **Hasi:** 00:22:46. **Bukatu:** 00:29:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Léon Tissier-k ikaragarriko gostua ukan du fruitu ondoekin, eta bere emazteak ere... 1968tik hona, sagar, udari, aran, mahats mota frango landatu ditu, bai eta ere fruitu ttipiak (mahurdiak, andere mahats beltzak, arragak edo mauriak, mahaxuxak). Konfiantza gehiago badu tokiko espezie xaharretan.

7. Arbolen txertatzea

- **Erref:** SRK-001/007
- **Iraupena:** 0:07:32. **Hasi:** 00:29:49. **Bukatu:** 00:37:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Landarea berria erosteko orde, txerta daiteke nahi den gerezi mota gerezi basari, nahi den sagar mota sagar basari, nahi den arana mota arana basari edo udari mota irasagarrari, etabar. Txertatze gehienak martxoan egiten dira, sapa abiatzen denean, txertatze teknika desberdinak erabiliz : botoinean txertatuz, urratuz, axalean, xirula mirula...

8. Arbolen landatzea eta urteko lanak

- **Erref:** SRK-001/008
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:37:21. **Bukatu:** 00:41:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Landatzea abendotik hara egiten da eta, gero, urte guzian bada lana : ondoa jorratze, unkailu emaita, ostu kentze (despullatzea), tratatze (bereziki kukusoen kontra), adar mozte. Martxo inguruan da halere lan handiena (hor baita egiten txertatzea). Bospasei urte beha egon behar da arbola bat handitu arte.

9. Arbolen eritasunak

- **Erref:** SRK-001/009
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:41:40. **Bukatu:** 00:43:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Eritasun edo etsai ezagunak bazituzten fruitu-ondoek : phylloxera mahastietan, gaztain-eritasuna (frantsesez « encre » deitua), sagartzetan harrak edo ere kukuso ttipiak, hellorda (la rouillie)... Tratamendu kimikoak egiten ziren horien suntsitzeko . Askok erabiltzen zen ere tratamendu natural bat : mitriola.

10. Fruitu ttipien landatzea eta baratzearen egitea

- **Erref:** SRK-001/010
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:43:30. **Bukatu:** 00:47:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Fruitu ttipiak (mahurdiak, andere mahats beltzak, arragak edo mauriak, mahaxuxak) neguan landatzen dira (urtarrila-otsailean) Baratzearentzat, lurra aintzinetik apailatu behar da (larrazkenean ondoko primaderako, lurra karroin dadin). Hobelandare guziak beherapenean ereitea, pastinagre eta entsaladekin has daiteke, gaindelairuz, aterbe baten pean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com